



Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan babesteko programa



2016ko urtarila

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

CEA(R)
EUSKADI
Errefuxiatuen Laguntzarako
Batzordea Euskadin

Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan babesteko programa

2016ko urtarrila

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Sarrera

Munduko hainbat eskualde eta herrialdetan, giza eskubideen defendatzaileek beren bizitza eta osotasun fisiko eta psikologikoa, bai eta haien senideena ere, arriskuan jartzen dituzten mehatxu eta jazarpenak pairatzen dituzte.

Kolektibo horrek beren lurralde edo jardun-eremutik lekualdatzera behartua izateko arrisku berezia du. Munduan, joera kezagarri eta orokortua eraten dute, oraindik ere, eraiketa, eraso eta mehatxuek; sarri, justizia-sistema erabiltzen da haien lana mugatzeko, haiek isilarazteko eta haien sinesgarritasuna ahultzeko, kriminalizazioa eta zigorgabetasuna nagusitzen direlarik; gizartearen protestak indarkeria neurrigabe erabiliz zapaltzen dira; eta estigmatizazio-kanpainak abiarazten dira, beste bortizkeria-ekintzen artean.

Kriminalizazio-, jazarpen- eta behartutako lekualdatze-egoera horiek gero eta ezagunagoak dira, giza eskubideen defendatzaileek beren jatorriko herrialde barruan nahiz kanpoan egindako ikusgaitze-lanari esker, bai eta nazioarteko komunitatearen laguntza eta babesari esker ere. Nolanahi ere, defendatzaile ugariaren babesgabetasun-egoerak larriki eragozten du giza eskubideen alde egiten duten lan zilegi eta eraldatzailea.

Nazioartean¹ biziki gomendatzen dute giza eskubideen defendatzaileak babestea, eta lege-esparrua du bai Europan² bai Espainian³.

Esparru honetan, nazioarteko babes eta elkartasuneko tresnak dira Aldi batez Babesteko Programak: alde batetik, pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa babesten laguntzen dute; bestaldetik, baita jatorriko lurraldean giza eskubideen aldeko prozesuei eusten ere, harrera-herrialdeetako antolakunde, mugimendu eta erakundeekin lotura eratuz.

Era berean, funtsezkoa da lanean jarraitzeko, hartara, aintzat har dadin zein ekarpen baliotsua egiten duten pertsona horiek askatasunaren, berdintasunaren eta justizia sozialaren printzipioak aurreratzeko eta indarkeriari bide ematen dioten egiturazko kausak ikusgai egin eta errotik kentzeko.

¹ 60/161 Ebazpena (2. eranskina), Nazio Batuen Batzar Nagusiarena: *Gizabanakoek, taldeek eta erakundeek mundu osoan onartutako giza eskubideak eta oinarriko askatasunak bultzatu eta babesteko dituzten eskubideari eta betebeharrari buruzko adierazpena*

² Europar Batasunaren gidalerroak Giza Eskubideen Defendatzaileei buruz, 2004ko ekainaren 14a. 2008an berrikusiak.

³ 257/2007 Errege Dekretua, «... laguntzen xede diren arreta humanitarioko ekintzak, giza eskubideen defendatzaileei bizi diren herrialdeetatik ateratzen laguntzera zuzendurikoak...» (1.2. art.).

Aurrekariak

2011n, Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailak, Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan Babesteko Programa martxan jarri zuen. Gaur egun, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza da programaren burua.

Eusko Jaurlaritzak, hala, nazioarteko esparrura bideratzen du bere jarduera, giza eskubideekiko eta nazioarteko elkartasunarekiko konpromisotik.

CEAR-Euskadik garatzen eta kudeatzen du Programa. Erakundeak ibilbide luzea du giza eskubideak babesten eta sustatzen; orobat, nazioarteko babesaren behar duten edota bazterketa-arriskuan dauden errefuxiatu, lekualdatu, aberrigabe eta migratzaileen garapen integrala bultzatzen du.

Aintzat harturik zer egoera bizi duten giza eskubideen defendatzaileek munduko hainbat lurraldetan eta gero eta zailago dutela nazioarteko babeseko mekanismoei heltzeko aukera, CEAR-Euskadik haiei babes emateko estrategia espezifikoak prestatzea proposatu zuen. Horrenbestez, eta babes-eskubidearen defentsaren osagarri, arriskupean dauden giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko mekanismoak ezartzeko lanean hasi zen erakundea.

Esparru horretan, 2009an, Kolonbiarekin elkartasunean lan egiten duten zenbait euskal erakundek ⁴Kolonbiarekiko Elkartasun Iniziatiba (Kolektiba Colombia) abiarazi zuten. Estatuan –batez ere Asturiasen eta Katalunian– jada abiarazitako babes-esperientziak aztertuta, Euskadin euskal lankidetzaren eta elkartasunaren berezitasunei egokitutako babes-programa bat ezartzeko erabakia hartu zuten.

Bi programen funtzionamendua ezagutzeko, jatorri-lurraldean harremanak eratzeke, eta Euskadin ezarriko den ereduari buruzko ikaskuntzak eta hobekuntzak ondorioztatzeko, 2010ean Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Kataluniako Programaren nazioarteko laguntza-misioan parte hartu zuen CEAR-Euskadik; 2011n, aldiz, Kolonbian giza eskubideen egoera egiaztatzeke VII. asturiar-ordezkaritzan izan zen, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin batera.

Euskadiko Babes Programa

Helburua

Euskal programaren helburua da jaioterrian gauzatzen duten jarduera dela-eta beren bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan duten giza eskubideen defendatzaileak babestea, Euskadin sei hilabeterako hartuta.

Babes gisa zera ulertzen da: giza eskubideen defendatzaileek, erakundeek eta instituzioek bizitzeko eta lan egiteko eremu seguruak sortzeko eta hedatzeko gauzatzen dituzten ekintzen multzoa. Ildo horretan, babesak osotasun fisiko, emozional eta kolektiboaren aurkako mehatxuei aurre egiteko hainbat estrategia eta ekintza hartzen ditu barruan.

Giza eskubideen defendatzaileak: lehenetsitako kolektiboak

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoari jarraikiz, giza eskubideen defendatzaileak dira indibidualki nahiz besteekin batera giza eskubideak sustatzeko edo babesteko ahaleginak egiten dituzten pertsonak. Termino zabala da, eta barne hartzen ditu giza eskubideen urraketa oro desagerrarazten laguntzen eta eskubideon benetako baliatzea sustatzen dituzten horiek ere, direla banakoak, direla kolektiboak.

Esparru horretan, Euskadiko Babes Programak hauek jotzen ditu giza eskubideen defendatzailetzat: eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumen-eskubideak defendatzen diharduten antolakunde edo mugimendu sozialei lotutako pertsonak.

⁴ Paz con Dignidad, Mugarik Gabe, Mundubat, Posada de los Abrazos, Colectivo Bachué eta CEAR-Euskadi.

Nazio Batuen Errelatore Bereziak giza eskubideen defendatzaileen egoeraren berri emateko izendatutako ordezkariak zehaztutako kolektiboek emango zaie lehentasuna:

- Antolakunde feministen kide diren emakumeak eta LGTTBI⁵ pertsonen eskubideen defentsan diharduten pertsonak.

Giza eskubideen egoerari buruzko Nazio Batuen Errelatore Bereziaren 2010eko txostenak zera adierazten du: «emakumezko defendatzaileek indarkeria mota jakin batzuk eta bestelako urraketa, aurreiritzi eta bazterketa- eta arbuio-modu pairatzeko arrisku handiagoa dute, gizonetzko defendatzaileen aldean». Pairatzen dituzten indarkerien artean, ikusezintasuna bereizgarri komuna dute. Orobat, hainbat herrialde eta eskualdetan areagotzen ari dira, modu adierazgarrian, emakumeen aurkako erasoak⁶.

- Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumen-eskubideen defentsan diharduten pertsonak; batez ere, lur-eskubidea aldarrikatzen dutenak, populazio indigenak eta afrikarren ondorengoak.

Mundu mailan, bereziki kezkarria da lur-eskubideak defendatzen dituzten pertsonen egoera. Azken urteotan Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Behatokiak jazarpen-kasuen hazkuntza dokumentatu du.

- Gutxitutako kolektiboen eskubideen alde diharduten pertsonak.

Parte hartuko duten eragileak

CEAR-Euskadik kudeatzen du Euskadiko Babes Programa, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza duela buru. Honako hauek hartzen dute parte, Hautaketa Batzordearen kide diren heinean: Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Kanpoko Ekintza Zuzendaritzak, Hegoa Institutuak (Euskal Herriko Unibertsitatea), Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak (Deustuko Unibertsitatea), Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEen Koordinatzaileak eta Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroak. Horrez gain, urtero, hautagaitzak aurkezten dituzten euskal antolakundeek Babes Sarea eratzen dute. Azkenik, ANSUR kolektiboak ere hartzen du parte, babesari eta segurtasunari buruzko kontuen inguruan aholkatzen.

Prozedura

Hautagaitzak aurkeztea

Programak hiru pertsona hartzen ditu Euskadin, urtero, sei hilabetez. Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak deialdi ofiziala argitaratzen duen unetik bi hilabeteko epea zabaltzen da hautagaitzak aurkezteko.

Beste herrialde eta eskualde batzuekin elkartasunean lan egiten duten Euskadiko antolakunde nahiz mugimendu sozialen bitartez aurkezten dira hautagaitzak; izan ere, haiek laguntzen dituzte hautagaiek parte hartzen duten giza eskubideen defentsarako prozesuak, eta, beraz, testuingurua ezagutzen eta bertan diharduten instituzio, erakunde eta elkartasun-sareen irispidean daude.

CEAR-Euskadik hautagaitzak jaso, eta Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari bidaltzen dizkio.

Hautagaitzen aurkezepena

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak deitzen du Hautaketa Batzordea, eta, batzordekideek egoki deritzen txostenak eskatu ahal izango dizkiete hautagaitzak proposatzen dituzten euskal erakundeei, arrisku-egoerak eta horien zergatiak egiaztatzeko, datuen konfidentziasuna eta hautagaiaren segurtasuna bermatuta.

⁵ Lesbiana, Gay, Transexual, Transgenero, Bisexual eta Intersexualak.

⁶ Kolonbian, 2014an, Somos Defensores programak 626 eraso indibidual erregistratu zituen (% 65 gizonetzkoak eta % 35 emakumezkoak); hau da, % 71 hazi da aurreko urteari dagokionez, eta % 160 inguru emakumeen erasoen kasuan. Guatemalan, 2014an, Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Unitateak (UDEFEUGA) 813 eraso zenbatu zituen: emakumeen kasuan % 51,84 hazi dira.

Batzordeak adostasunez erabakiko du zer hiru pertsona hartu babespean; horretarako, formularioa⁷, bidalitako dokumentazioa eta arrisku-irizpideak (mehatxu-egoerak prebenitzea eta galaraztea), bai eta genero-irizpideak ere, hartuko ditu oinarri gisa. Irizpideon bitartez zera nahi da bermatu: Programak benetan lagunduko duela babespean hartutako pertsonen arrisku-egoerak murrizten.

Hautagaitza bat aukeratzen denean, hura proposatu duen euskal erakundea Babes Sarearen parte izatera igaroko da. Erakunde horrek eratuko du, orobat, Programaren koordinazioaren (CEAR-Euskadi) eta jatorrian dagoen erakundearen arteko komunikazio kanala.

Jatorri herrialdetik irteera

Jatorriko herrialdean dauden erakundeak, Babes Sareak eta Programaren koordinatzaileek (CEAR-Euskadi) elkarrekin antolatzen dute hartuko diren pertsonen irteera (bidaia prestatzea, dokumentazioa kudeatzea, itxaropenak zehaztea, hasierako testuingurua aztertzea...) eta Euskadin egingo zaien harrera.

Harrera

Programa ikuspuntu psikosozial batetik garatzen da: ikuspegi horren bitartez giltzatzen dira, hain zuzen ere, babestutako pertsonen erakundeen eta mugimenduen eragin politikoa, eta horien antolatze- eta komunitate-laguntza eta sendotzea.

Programaren koordinatzaileak izango dira harreraren buruan, eta Babes Sareak ere parte hartuko du. Honako ekintza hauek planteatzen dira:

Laguntza psikosoziala: Programa babesaren ikuspegi integraletik garatzen da, eta hainbat kontu sartzan dira hor barruan: alderdi pertsonalak, antolakuntzari buruzkoak eta politikoak; indarkeria politikoren eraginez arreta berezia behar duten pertsonen laguntza psikoterapeutikoa; eta babespean hartutako pertsonen zaintza, herrialdetik aldi batez ateratzeko esperientzia lantzeari dagokionez.

Agenda politikoa: Hau da Euskal Autonomia Erkidegoko egonaldian egindako lanaren helburua: pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionalki eta politikoki babesteko nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea. Praktikan, sare horiek babes-mekanismo bezala jarduten dute; hala, jendeak modua du lurraldean giza eskubideak babesten jarraitzeko. Lan horrek, batetik, sentikortzeko aukera emango du; bestetik, Euskadiko –eta kasuan-kasuan, Espainiako eta Europako– herritarren eta erakundeen aurrean agerian uzteko eta salatzeke zer mehatxu-egoera pairatzen dituzten giza eskubideen defentsan diharduten erakundeek, eta zer aldarrikapen dituzten ildo horretan.

Horretarako bi agenda garatuko dira: agenda instituzional bat, Programaren koordinazioa dela buru, babespean hartutako hiru pertsonentzat; eta berezko agenda bat, Babes Sarea buruan, babespean hartutako pertsona bakoitzarentzat.

Prestakuntza-agenda: Haien kezkak eta interesak zein diren ikusita, asmoa da prestakuntza espezializatua ematea giza eskubideen defentsaz eta sustapenaz. Programaren babespeko pertsonen lan-ibilbide aintzatetsia dutenez, akademia munduaren eta gizartearen hainbat esparrutan ere parte hartuko dute, hizlari gisa.

Itzulera

Programa barruko une garrantzitsuenetakoa da, bereziki, babestutako pertsonen segurtasunari dagokionez. Beharrezkoa da arrisku-diagnostiko bat egitea, Programan egindako jarraipen etengabea harturik oinarri, eta ekintza-plan batzuk diseinatzea, jatorri-lurraldeetara itzultzeari begira.

Ezarriko diren babes-estrategiak taxutzeko, Testuinguruaren Azterketa eta Arrisku Diagnostikoa erabiltzen dira abiapuntu gisa. Estrategiak ez dute elkar bazterten. Testuinguru jakin bakoitzean horien konbinazio egokia ezarri beharko da, aintzat harturik zer indar eta ahulezia dituzten erakundeek eta zer babes- eta laguntza-sare dituzten defendatzaileek, baita haiek Euskadin egon bitartean sortu edo indartu direnak ere.

⁷ Ikus eranskina

Jarraipena

Giza eskubideen defendatzaileak beren jatorriko herrialdeetara itzuli ostean, Programak haien eta haien erakunde nahiz mugimenduen egoeraren jarraipena egiten du, euskal antolakundeen bitartez; haiek jarraituko dute sorlekuan giza eskubideak aldezteko prozesuak laguntzen eta babesten.

Euskal ordezkari bat bisitan doa Programan hartutako defendatzaileen jatorriko herrialdera, Programan hartutako pertsonen egoera pertsonal eta komunitarioaren jarraipena egiteko asmoz, haren babes sarea sendotzeko eta gobernuaren, erakundearen eta, kasuan-kasuan, legebiltzarraren laguntza ikusgai egiteko.

Bisitan, estua izan ohi da bilera-agenda eta, besteak beste, hauekin biltzen dira: erakunde sozialetan eta giza eskubideen arloko erakundeekin, instituzio publikoekin, nazioarteko erakundeekin eta ordezkari diplomatikoekin. Helburua da babespean hartutako pertsonen eta haien erakunde nahiz mugimenduen segurtasunari lotutako kezka nagusien berri ematea. Eduki aipagarrienak txosten batean sartzen dira: bertan jasotzen dira euskal ordezkariaren azterketa, balorazioak, kezka bereziak eta gomendioak. Txostena jatorriko herrialdeko giza eskubideen erakundeei, instituzio publikoei eta nazioarteko erakundeei helarazten zaie, bai eta, kasuan-kasuan, Euskadikoei eta Espainiako Estatukoei ere.

Euskadiko Babes Programak hainbat herrialdeetako pertsonak hartzen ditu berean; beraz, urtero, arriskuaren eta baliabideen kudeaketarekiko koherentziaren irizpideei erreparatuz diseinatzen dira bisitak.

Jarraipen-ordezkariak orain arte egindako txostenak eskuratzeko, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren webgunera (<https://www.euskadi.eus/informacion/programa-defensores-y-defensoras-de-derechos-humanos/r48-pazconte/es/>) nahiz CEAR-Euskadiren webgunera jo daiteke (<http://cear-euskadi.org/?p=388>).

Ikasketak, erronkak eta etengabeko hobekuntza

Euskadiko Babes Programa tresna bizia da, eta etengabe berraztertzen eta birmoldatzen da. Izan ere, erantzukizun-ariketa eta erronka etengabekoa da giza eskubideen defendatzaileen babesa. Instituzioen, erakundearen nahiz komunitatearen esparruko ahots ugari taxututako programa bat da gaur egungoa: dela Euskadin, dela beste herrialde eta eskualde batzuetan, babeserako eta elkartzunerako tresna hau taxutuz joan dira.

Programak barruan hartzen du urteko ebaluazio bat ere, etengabe ikasteko eta hobetzeko ardatz gisa. Ebaluazioan, Programan sartutako eragileek parte hartzen dute: giza eskubideen defendatzaileak eta haien jaioterriko erakundeak, Babes Sareak (Euskadiko erakundeak), Hautaketa Batzordeak, Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak, ANSUR kolektiboak, euskal ordezkariaren kideak (jarraipenerako ordezkariak) eta Programaren koordinatzaileak (CEAR-Euskadi).

Beste babes-programa batzuekin txertatzea

Giza eskubideen defendatzaileak aurre egin beharreko mehatxu-egoera ugariei erantzuna koordinatzeko helburuz, Programa Espainiako Estatuan garatutako babes-programekin artikulatzen da, modu egonkor eta finkatuan; horrez gain, 2015. urtearen erdialdetik, *Giza eskubideen defendatzaileak aldi baterako birkokatze plataformaren* parte da.

Arriskupean dauden giza eskubideen defendatzaileak aldi batez birkokatzeko plataforma globala (Europar Batasuna)

Plataforma hori Europako Batzordearen ekimen bat da, Europar Batasunak giza eskubideen defendatzaileei buruz emandako zuzentarauak betetzen dituen⁸. Plataformaren kideak hainbat sektoretakoak dira: unibertsitateak, gobernuz kanpoko erakundeak –nazio, eskualde nahiz nazioarte mailakoak–, hiriak, udalerriak, gobernuak. Helburua da giza eskubideen defendatzaileen babes-premiei eta haiek aurre egin beharreko arrisku maileri erantzun koordinatua ematea, jardute-esparru desberdinetatik.

Informazio gehiago jasotzeko, honako hauekin jar zaitezke harremanetan:

CEAR-Euskadi:

Leire Lasa Fernández, Aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan Babesteko Programaren koordinatzailea

programa.proteccion@cear-euskadi.org

Telefono-zenbakia: (0034) 94 424 8844

Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria:

derechos-humanos@euskadi.eus

Telefono-zenbakia: (0034) 945 016628

⁸ Europar Batasunaren gidalerroak Giza Eskubideen Defendatzaileei buruz, 2004ko ekainaren 14a. 2008an berrikusiak. EBko estatu kideek betekizun dute «*beste herrialde batzuetan arriskupean dauden giza eskubideen defendatzaileak laguntzeko eta babesteko neurri azkarrak aurreikustea: adibidez, egoki deritzenean premiazko bisak emanda eta Europar Batasuneko estatuetan aldi baterako harreraren alde eginik*».

Giza Eskubideen Defendatzaileak
aldi batez Euskal Autonomia
Erkidegoan Babesteko
Programarako hautagaitzak
aurkezteko eskabidea

Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan Babesteko Programarako hautagaitzak aurkezteko eskabidea

Posta elektronikoz bidali hautagaitzak, helbide honetara: programa.proteccion@cear-euskadi.org

Informazio gehiago eman nahi bada, erantsitako dokumentazioa aurkez daiteke. Formularioa betetzean zalantzak badituzue, CEAR-Euskadirekin harremanetan jar zaitezke (helbide elektronikoa: programa.proteccion@cear-euskadi.org; telefono-zenbakia: 0034 944248844).

1. ERAKUNDE ESKATZAILEA (Euskadiko antolakundea)

1.1. Erakunde eskatzailearen datuak

Erakundearen izena	Erakundearen IFZ/IFK	
Erakundeak jakinarazpenetarako duen helbidea		
Udalerrria	PK	
Legezko ordezkariaren izena	Legezko ordezkariaren izena	
Erakundearen izaera juridikoa ☐ Elkartea ☐ Fundazioa ☐ Beste batzuk (zehaztu)		
Teléfono	Fax	Correo electrónico (a efectos de comunicación)
Web helbidea		

Sinatzen duenak **egiaztatzen** du erakunde esleitzzaileak betetzen dituela deialdi honetan hautagaitzak aurkezteko baldintzak. Hori dela-eta **ziurtatzen** du ezen inprimaki honetan eta erantsitako dokumentazioan dauden datuak egiazkoak direla.

Erakunde eskatzailearen
legezko ordezkariaren sinadura:

Erakundearen zigilua:

Lekua eta data:

1.2. Erantsi honako dokumentazio administratibo hau:

- ☐ Erakundeak Autonomia Erkidegoko Bazkunen Errolda Nagusian izena eman duela egiaztatzeko fotokopia.
- ☐ Erakunde eskatzaileak erakundea dela-eta duen legezko ordezkartzaren egiaztapenaren fotokopia.

Oharra: aurreko deialdietan hautagaitzak aurkeztu badira, ez da beharrezkoa lehen bi atal hauei buruzko dokumentazioa eranstea.

- ☐ Erakunde eskatzailearen konpromiso-akta (3. eranskina bete).

1.3. Erakunde eskatzailearen lan-ildo orokorrak

(Oharra: informazio hori ematen duen jarduera-memoria bat aurkezten bada, ez da beharrezkoa eremu hau betetzea).

1.4. Hautagaiak bere jaioterrian egindako lanaren inguruko memoria labur bat

(Oharra: informazio hori ematen duen jarduera-memoria bat aurkezten bada, ez da beharrezkoa eremu hau betetzea).

1.5. Hautagaia kide den erakundea/mugimendua laguntzeko eta babesteko egindako lanaren memoria labur bat

(Oharra: informazio hori ematen duen jarduera-memoria bat aurkezten bada, ez da beharrezkoa eremu hau betetzea).

1.6. Bakea bultzatzeko eta giza eskubideak babestu eta sustatzeko tokiko, nazioko nahiz nazioarteko sare bateko kide izatea.

Sarearen izena	Urtea	Tokikoa	Nazionala	Nazioartekoa
		☐	☐	☐
		☐	☐	☐
		☐	☐	☐
		☐	☐	☐

2. DEFENDATZAILEAREN ERAKUNDEARI BURUZKO DATUAK (jaioterriko erakundea):

2.1. Datos de la entidad:

Erakundearen izena		
Udalerrria	País	
Legezko ordezkariaren izena		
Telefono-zenbakia	Faxa	Posta elektronikoa (jakinarazpenetarako)
Web helbidea		

2.2. Adjuntar la siguiente documentación administrativa:

- ☐ Defendatzailearen erakundearen berme-gutuna (1. eranskina bete).
- ☐ Defendatzailearen erakundearen konpromiso-akta (2. eranskina bete)

2.3. Memoria breve del trabajo de la organización / movimiento al que pertenece la persona candidata –incluyendo trabajo en la región o comunidad de origen-

(Nota: no es necesario rellenar este campo si se entrega memoria de actividad que incluya esta información).

2.4. Adhesión a redes locales, nacionales e internacionales vinculadas al fomento de la paz y la defensa y promoción de los derechos humanos.

Sarearen izena	Urtea	Tokikoa	Nazionala	Nazioartekoa
		☐	☐	☐
		☐	☐	☐
		☐	☐	☐
		☐	☐	☐

3. DEFENDATZAILEARI BURUZKO DATUAK

3.1 Datu pertsonalak

Izen-deiturak	
Identifikazio-agiri nazionala edo, hala badagokio, pasaportearen iraupen-iturria eta adierazita.	Harremanetarako datuak (jakinarazpenetarako): Helbidea: Telefono-zenbakia: Harremanetarako pertsona:
Jaiotze-data:	Sexua:

3.2. Hautagaia aldi baterako erbesteratuz babestea beharrezkoa dela pentsatzeko arrazoiak.

3.3. Hautagaiaren prestakuntza akademikoa edo ibilbidea

(Oharra: CVa erantsi bada, ez da beharrezkoa eremu hau betetzea).

3.4. Programak defendatzailearentzat eta haren antolakunde/kolektiboarentzat izango duen erabilgarritasunaren aurreikuspena: Euskadin politikaren eta prestakuntzaren alorrean eraman lezakeen agenda.

3.5. Defendatzaileari buruz ezagutu behar den beste konturen bat

(egonaldian eragina izan dezakeelako: adibidez, osasuna).

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakinarazten zaizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza. Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatzeak nahiz aurka egiteko aukera duzu; horretarako, helbide honetara jo behar duzu: Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza: Nafarroa kalea, 2 / 01007 Vitoria-Gasteiz.

1. ERANSKINA

Defendatzailearen erakundearen BERME-GUTUNA

Defendatzailearen erakundearen gutun bat, honako eduki hauek izango dituen:

- Antolakundearen izena.
- Aurkezten eta bermatzen duten defendatzailearen izena.
- Antolakundeko defendatzailearen kargua eta erantzukizuna.
- Lekua eta data.
- Antolakundeko arduradunaren sinadura.
- Erakundearen zigilua.

2. ERANSKINA

Acta de compromiso de la entidad en origen de la persona defensora

_____, Erakundeak, Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan Babesteko Programaren eta haren ondorioen jakitun delarik,

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BABESTEKO PROGRAMAREN AURREAN HITZEMATEN DU HONAKO HAUEK EGINGO DITUELA:

1. Defendatzaileari Programaren helburuen eta hartutako konpromisoen berri emango diola.
2. Euskadiko antolakundearekin etengabeko eta trabagabeko komunikazioa izango duela.
3. Defendatzailearen erbesteratzea kudeatuko duela, Euskadiko antolakundearekin eta Programaren koordinatzaileekin koordinatuta.
4. Herrialdetik ateratzeko kudeaketatik eratorritako gastuak justifikatzeko beharrezko diren administrazio-eginkizunak beteko dituela (adb.: bisak izapidetzea), Euskadiko antolakundearekin koordinatuta.
5. Defendatzailea herrialdetik ateratzeko jakin beharreko edozein aldaketa jakinaraziko dizkiola Euskadiko antolakundeari.
6. Defendatzailearekin adostu duela zer profil publiko den egokiena eta komenigarriena Euskadin egon bitartean.
7. Programaren koordinatzaileen gomendioei kasu egingo diela, eta komunikazio etengabea izango duela haiekin.
8. Defendatzailea programan sartzera eraman duen jatorri-egoeraren (testuinguruaren) jarraipena egingo duela, eta Euskadiko erakundeari jakinaraziko diola.
9. Aktiboki lagunduko duela arrisku-diagnostikoa eta ekintza-planen diseinua egiten, Euskadiko antolakundearekin eta Programaren koordinatzaileekin koordinatuta.
10. Euskadiko antolakundearekin komunikazio etengabea izango duela, defendatzailearen itzulera osteko egoera pertsonalaren eta antolatze-egoeraren jarraipena egiteko.

Konpromiso hauek onartzen ditut.

Sinadura:

ANEXO 3

Euskadiko erakunde eskatzailearen konpromiso-akta

_____, erakundeak, Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan Babesteko Programaren eta beraren ondorioen jakitun delarik,

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BABESTEKO PROGRAMAREN AURREAN HITZEMATEN DU HONAKO HAUEK EGINGO DITUELA:

1. Defendatzailearen antolakundeari Programaren helburuen eta hartutako konpromisoen berri emango diola.
2. Hartutako pertsonekin, Babes Sarearekin eta Programaren koordinazioarekin begirunezko eta arretazko jokabidea izango duela.
3. Jatorriko erakundearekin etengabeko eta trabagabeko komunikazioa izango duela.
4. Defendatzailearen erbesteratzea kudeatuko duela, jatorri-eskualdeko antolakundearekin eta Programaren koordinatzaileekin koordinatuta.
5. Herrialdetik ateratzeko kudeaketatik eratorritako gastuak justifikatzeko beharrezko diren administrazio-eginkizunak beteko dituela (adb.: bisak izapidetzea), jatorriko antolakundearekin koordinatuta.
6. Defendatzailearen agenda politikoa eta prestakuntza-agenda taxutzen lagunduko duela, aktiboki, jatorri-eskualdeko antolakundearekin eta Programaren koordinatzaileekin koordinatuta.
7. Agenda politikoak eta prestakuntza agendak ekarritako gastuak justifikatzeko behar diren administrazio-eginkizunak beteko dituela.
8. Defendatzailearen harrera eta itzulera prozesuetan parte hartuko duela, Programaren koordinatzaileekin batera.
9. Defendatzailearen harrera- eta itzulera-prozesuetan jatorriko egoerari (testuinguruari) egindako jarraipenaren berri emango diola Programaren koordinatzaileei.
10. Arrisku-diagnostikoa eta ekintza-planen diseinua egiten lagunduko duela, aktiboki lagundu ere, Euskadiko erakundearekin eta Programaren koordinatzaileekin koordinatuta.
11. Egoera soziopolitikoan gertatzen diren aldaketei buruz behar bezala informatuko duela, defendatzailearen itzulera eragina badute.
12. Jatorriko antolakundearekin komunikazio etengabea izango duela, defendatzailearen itzulera osteko egoera pertsonalaren eta antolatze-egoeraren jarraipena egiteko.

Konpromiso hauek onartzen ditut.

Sinadura:

PROGRAMAREN KOORDINATZAILEEN BETEBEHARRAK (CEAR-EUSKADI)

CEAR-Euskadik honako betebeharrak hauek ditu EAE-ko Babes Programaren erakunde koordinatzaile gisa:

1. Euskal antolakundeei Programaren helburuen eta irismenaren berri ematea, bai eta alderdiek hartutako konpromisoen berri ere.
2. Hartutako pertsonak eta Babes Sarea begirunez eta arretaz zaintzea.
3. Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin eta Programaren Hautaketa Batzordearekin elkarriketa bideratzea.
4. Hartutako pertsonen, Babes Sarearekin eta jatorriko erakundeekin etengabeko eta trabagabeko komunikazioa izatea.
5. Defendatzaileen erbesteratzea kudeatzea, Babes Sarearekin, jatorri-erakundeekin eta Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta.
6. Herrialdeetatik ateratzeko kudeaketatik eratorritako gastuak justifikatzeko beharrezko diren administrazio-eginkizunak koordinatzea (adib.: bisak izapidetzea), Babes Sarearekin lankidetzan.
7. Babespean hartutako defendatzaileei esleitutako harrera-pisua eta eskudirua kudeatzea.
8. Pisuko elkarbizitza eta, hala behar bada, banan-banako laguntza terapeutikoa kudeatzea.
9. Pertsonen babesari eta segurtasunari buruzko gaietarako laguntza kudeatzea, ANSUR kolektiboarekin, babestutako pertsonen, Babes Sarearekin eta Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin elkarlanean.
10. Defendatzaileen agenda politikoaren jarraipena egitea eta Programaren agenda instituzionala kudeatzea, babespean hartutako pertsonen, Babes Sarearekin eta Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin elkarlanean.
11. Defendatzaileen prestakuntza-agenda koordinatzea, Hautaketa Batzordeko kide diren institutu akademikoekin eta Babes Sarearekin elkarlanean.
12. Agenda politikoak eta prestakuntza agendak ekarritako gastuak justifikatzeko behar diren administrazio-eginkizunak koordinatzea, Babes Sarearekin elkarlanean.
13. Hartutako pertsonen egonaldian egin beharreko izapide juridikoak kudeatzea.
14. Harrera-prozesua, jatorriko lurraldeko egoeraren (testuinguruaren) jarraipena eta itzulera-prozesua (arrisku-diagnostikoa eta ekintza-planen diseinua) koordinatzea, ANSUR kolektiboarekin, hartutako pertsonen eta Babes Sarearekin elkarlanean.
15. Itzuleraren ostean jatorrian bertan jarraipena egiteko bisita koordinatzea, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin, hartutako pertsonen eta Babes Sarearekin elkarlanean.
16. Babes Sarearekin komunikazio etengabea izatea, defendatzaileen itzulera osteko egoera pertsonalaren eta antolatze-egoeraren jarraipena egiteko.